

Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

370

Apirilak 1, 2020

ELKARTASUNA

COVID-19A

GAINDITZEKO

GAKOIA

3-4-5 Koronabirusa Irunen

6-7 Elkartasuna

8 Kirolak: Koronabirusaren eragina

9 Entretenezko 10 ideia

10 Kolaborazioa: Ainara Maia

11 Haurren leihoa / Denbora-pasak

12 Gazteen lanak / Bertsoak

13 Etxean lan egiteko baliabideak

14 Gazte Informazioa

15 Agenda

Zer gertatu zen Irunen orain dela 100 urte?

1920ko apirilaren 4ean argitaratutako "El Bidasoa" aldizkarian hiriko bizitzarekin lotutako albisteak irakur daitezke. Aldizkariaren 240. zenbakiaren hasieran Carlota de Olazabal eta Arteagaren eskela ageri da. Jarraian, Ricardo Rodriguez Rodriguez Irungo alkate berriaren hautaketaren albistea emanten da, hurrengo artikuluan udal taldearen osaketa eta zinegotzien izenak aipatzeko. Juan E. Mendizabalek sinatutako testuan euskaldunek arrakasta lortzeko duten grinaz hitz egiten du idazleak.

"El Bidasoa" aldizkariko ohiko kolaboratzailea den E.R-k idatzitako artikuluan hiriko futbol taldearen azken partidu eta lortutako emaitzekin kronika osatzen du kazetariak. Hortaz gain, Bartzelonako futbol taldeak azken partiduetan egindako jokaldiak aipatzen dira kirol kronikaren barnean. "Notas municipales" atalak, berriz, martxoaren 27an egindako azken udal bileran hartutako erabakien zerrenda argitaratzen da. Ondoren, Juan Legarreta futbolaria agurtzeko antolatuko den omenaldirako hiritarrek egindako azken diru ekarpenen zerrenda gaurkotua argitaratzen da. "Fraile Arri"-k 1920ko apirilaren 2an Donostian idatzitako testuan "Prashedes" hitza erabiltzen du baratxuri eta tipula sailtzaileekin lotutako istorio laburrak kontatzeko.

"El centro obrero" tituluaren azpian hirian antolatu berri diren hitzaldi hezigarrietan landu diren gaiak eta erantzundako zalantzak laburbiltzen dira. Jarraian, hirian Aste Santuan zehar egindako ekintza ezberdinak zerrendatzen dira. "Hace años ..." atalak 1884ko martxoaren 16an hiriaren gaurkotasunarekin loturik argitaratu ziren albisteak gogora ekartzen ditu. Azkenik, "Ecos de sociedad" atalak hiriko goi klaseko biztanleen bizitzetan izandako nobedade nagusiak biltzen ditu, aldizkaria publizitate orrialdearekin itxi aurretik.

G57792: Aste Santuko prozesioa Fermin Calbeton kaletik XX. mendearen hasieran.

G10184: Aste Santuko prozesioa Bixera parean 1950. hamarkadan.

G57793: Ostiral Santuko prozesioa Fermin Calbeton kaletik 1909. eta 1913. urteen artean.



IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:

Joseba Arozena
Ainara Berges

erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Publizitatea:

Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:

Andrea Gomez Arocena

Inprenta:

ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Argitaratzailea:

837 comunicación y publicidad S.L
www.837comunicacion.com

ISSN:

1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943 04 20 52

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua:

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



Koronabirusa gelditzeko indarrak batu dituzte irundarrek



Duela hilabete edo aste batzuk imajina ezina zen munduan zehar erraztasun handiz zabalduko zen gaitz batek estatu osoko biztanleak etxean giltzapetzerainoko indarra izan zezakeela. Martxoko hilabetearen erdialdean, ordea, COVID-19 edo Koronabirusa izenez ezagutzen den birusak errealitatea egun batetik bestera alda daitekeela erakutsi zuen. Orduetik, momentura arte ezagututako bizimodu eta errutinak errotik erdibitu ostean, hiritarren arteko kontaktua ahal bezain beste murriztu eta egoera ezezagun berrira ahalik eta lasterren egokitze saiakean murgildurik bizi da gizartea.

COVID-19 gaixotasunaren lehen kasuak Txinako Wuhan hirian agertu ziren 2019 urteko abenduan. Gaixotasunaren jatorria azaltzen duten teoria ugariak egiaztatzea ezinezkoa izan den bitartean, COVID-19ak Asiako mugak gainditu eta beste kontinenteetara salto egin du. Era honetan, urrutik gelditzen zela zirudien gaixotasunak Europa eta Espainian sartu da, gaixotasunak eragindako ondorioak Irungo hiriraino iritsi direlarik.

Pandemia gelditzeko lehen neurriak

Koronabirusaren hedapena ekiditeko lehen neurri orokorrak martxoaren 13an, ostiralean, hartu ziren. Prebentzio neurri horien barnean, Euskadiko ikasketa-zentro guztiak ixtea erabaki zen, horrela, Haur Hezkuntzatik Unibertsitatera bitarteko ikasleak biltzen dituzten zentro guztien ateak itxi ziren. Era berean, aurreko udal zerbitzuak eta udal instalazioetan burutzen diren jardueren itxiera agindu zuen udalak.

Martxoaren 14a berrogeialdiaren barneko lehen larunbata izan zen eta jende askok, etxean gelditzeko gomendioari jaramon egin gabe, etxetik ateratzen jarraitu zuen. Jarrera arduragabe horien erakusleak izan ziren sare sozialen bitartez Aiako Harriak parke naturalean bildutako kotxe kopuru handia erakusten zuten argazkiak. Egun horretan bertan Bidasoako Ospitalera lehenengo koronabirus kasua detektatu zen eta udalak hiriko haur parke eta bainu publikoak itxi zituen.

Gaixotasunaren zabalpen azkarra ekiditeko, martxoaren 15eko gauean alarma egoera indarrean sartu zen Espainiako estatu osoan, herritarren zirkulazio askea mugatuz. Ministro Kontseiluan onartutako dekretuan herritarrek 15 egun etxetik atera gabe igarotzea agintzen zen, pertsonen mugimendua soilik kasu zehatz batzuetan baimenduz: osasun zentroetara joan, lanerako joan-etorriak egin, mendekotasunak dauzkaten pertsonen zainketaerako, finantza erakunde eta aseguru etxeen bulegoetara joan eta ezinebesteko egoerak edo beharrak kudeatzeko justifikatutako kasuetan.

Era horretan, pertsonak etxetik bakarrik ateratzea eta besteekiko metro eta erdiko tartea gordetzea eskatzen zen, oinarritzko beharrak asetzeko dendak irekita jarraituko zutela bermatzeaz gainera. Neurri horien harira, Eusko Jaurlaritzak txoko eta soziedade guztiak itxteko erabakia hartu zuen. Irunen zehazki, L1 autobus zerbitzua %50 eta L2 autobusaren zerbitzuak %33 murriztu ziren, L3 eta L4 autobusek ohiko zerbitzuari eutsi zioten eta garraio publikoaren garbiketa indartu zen. Hortaz

gain, TAO aparkalekuen ordainketa sistema bertan behera gelditu zen eta zamalanetarako guneak 24 orduz funtzionatzea adostu zen.

Egunak aurrera, neurri zorrotzagoak

Lehenengo egunetako nahasmedua ekiditeko, martxoaren 16tik aurrera supermerkatuetan segurtasun neurriak hartu ziren, txandak mantentzeko ilarak egin, pertsonen arteko segurtasun distantziak errespetatu eta erosketak egiteko eskularruak banatzen zaizkie erosleei.

Aste horretako asteartean, martxoaren 17an, Irun eta Hendaia arteko mugetan ezarritako kontrolak izan ziren eguneko protagonista nagusiak. Izan ere, muga gurutzatzeko gidari zein oinezkoei desplazamenduaren arrazoiak egiaztatzen zituen agiria erakustea eskatzen zitzairen. Halaber, Ama Xantalen egoitzak tabletak eskuratu zituen egoilar eta senideen arteko komunikazioa errazteko.

Martxoaren 18an, hirian hurrengo egunetan egitekoak ziren emanaldiak bertan behera uzteaz gainera, Osinbibil, Meaka Punttas-eko bidegorriak, San Miguel eta Belaskoeneako petanka zelaiak eta txakur parkeak itxi ziren. Neurri hauen bitartez arau-hauste gehiago gertatzea ekidin nahi zen, aurreko egunetan poliziak alarma egoera errespetatu ez zuten 20 pertsonen espedienteak ireki ostean. Martxoaren 22an Bidasoako Ospitalearen kanpoaldean karpa bat kokatu zen, ospitalera sartu gabe, kotxean bertan jendea koronabirus probak egin ahal izateko.

EGUNEKO MENUA · DASTATZEKO MENUA · KARTA · PINTXOAK ETA ERRAZIOAK



Meakaldea, 9 - 20305 IRUN
Tel.: 943 841 964

FELIX MANSO IBARLA JATETXEA

info@felixmanso.com
www.felixmanso.com



COVID-19ak Irungo hiriko



Berregeialdiko bigarren astea

Martxoaren 23an, berriz, MerkaIrún merkatuaren ordutegia egokitu eta Blaia hilerrian hiletetarako neurri bereziak hartu ziren, lurperaketa bakoitzera gehienez 10 pertsona sartu ahalko zirelarik. Egun berean, Gipuzkoako Foru Aldundiko suhiltzaileek Caser Residencial Anakako instalazioak desinfektatu zituzten 14 egoiliarrek koronabirusa zutela egiaztatu ostean. Martxoaren 24ean Ficobak, azokako jarduera eten ostean, langileentzako aldi baterako erregulazio espedientea eskatu zuela jakinarazi zuen. Bien bitartean, Osakidetzak langile guztiek eskatutako baimen eta opor guztiak, egoera hobetu arte, bertan behera gelditzen zirela iragarri zuen.

Egunek aurrera egin ahala aurretik hartutako neurriak errespetatzeaz gainera, egoera kontrolpean mantentzeko irtenbideak bilatu dira. Martxoaren 28an Loiolako kuarteleko ejertzitoko kideek Irungo tren geltokian desinfekzio lanak egin zituzten, Gobernuak hurrengo astelehenean aurrera eta apirilaren 9ra arte oinarrizkoak ez diren jardueren etenaldia agindu zuen egun berean.

Covid-19aren eragina gutxitzeko ahalegina

Pandemia geldiarazteko hartutako neurriez gainera, hiritarren bizimodua erraztu eta egoera arintzeko ahalegin egin da. Martxoaren 16tik aurrera udaleko Ongizate arloko langileak hirian bakarrik bizi diren 75 urtetik gorako pertsonekin harremanetan jarri ziren telefonoz oinarritako beharrak asetzeko laguntzarik behar zuten jakiteko eta asteazken horretarako ia 2.000 pertsonekin harremanetan jartzea lortu zuten. Gainera, pertsona etxegabeak babesteko plana martxan jarri zen Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan.

Martxoaren 17an, adibidez, udal zergen ordainketa atzeratzea adostu zen udalean. Era berean, martxoaren 24ean hiriko kiroldegiek itxialdiak iraun bitarteko denbora tarteari dagokion tasa kopurua erabiltzaileei itzuliko zaiela jakinarazi zen.

Era berean, Koronabirusak eragindako ekonomiaren etenaldia etorkizunean eragin dezakeen krisialdiaren aurrean, hainbat neurri prebentibo iragarri dira azken egunetan zehar. Adibidez, Ogasun arlotik jakinarazi

zenez, bide publikoa okupatzeagatik tasa ez zaie kobratu tasa zatika ordaintzea aurreikusita zuten enpresei. Zentzu berean, tasa horren ordainketa batera egiten dutenei urte amaieran alarma egoerak iraun bitartekoari dagokion zenbatekoa deskontatuko zaie.

Era berean, alarma egoeraren ondorioz Eskola Kirolak programa etetea ezinbestekoa izan zenez, programaren kudeatzailea den enpresak jakinarazi zuenez, familiei kurtsu amaieran etenaldiari denbora tarteari dagokion zenbatekoa itzultzeko asmoa du. Bestetik, Bidasoa biziriketako enpresa zentroetako bulegoetan lan egiten duten enpresek alarma egoerak iraun bitarteko denbora tarteari dagokion alokairua oraindu beharko ez dutela jakin zen.

Hortaz gain, trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga (bineta) ordainketa epe boluntarioa ekainaren 1era arte atzeratu zen martxoaren 27an. Horrekin batera, hondasun higiezinaren gaineko zergaren (OHZ) kuota boluntarioen ordainketa abuztuaren 1etik irailaren 15era bitarte egiteko tartea zabaldu zen.



Fernando
Vergara
argazkilaria

Letxumborro hiribidea 100,2º
20305 Irún
943 840 113 - 647 930 484

www.fotogover.com
www.fotogoverbodas.com
info@fotogover.com



kaleetan utzitako arrastoa



Eguna	COVID-19 kasuak Irunen
03/18	7
03/19	15
03/20	21
03/21	30
03/22	33
03/23	46
03/24	52
03/25	65
03/26	75
03/27	83
03/28	93
03/29	94
03/30	99
03/31	108

Informazio zuzena jasotzearen garrantzia

Egoera ezohiko honetan hiritarrek informazioa eskura eduki eta modu errazean topatzeko gai izango direla ziurtatzeko Irungo udalak webgunearen egitura aldatu zuen eta atal bakar batean COVID-19arekin lotutako informazio guztia bildu da. Atal horretan era askotariko informazio erabilgarria aurkitu daiteke, hiritarrek momentura arte udaleko arreta zerbitzuetan egindako galdera ohikoekin osatutako atalaz gainera.

Hortaz gain, 010 informazio telefono zenbakiaren ordutegian aldaketak egin ziren eta ondorioz, telefonoa 20:00ak arte martxan egon ordez, martxoaren 26tik aurrera arratsaldeko 19:00ak arte zerbitzua eskaintzen du. Dena dela, egun horretatik aurrera, larunbat zein igande arratsaldeetan ere zerbitzua ematen du arreta ordutegia luzatzeko asmoz.

Horrela, azken egunetan zehar hartutako neurriak arintzen laguntzeko, udalak etxetik egin daitezkeen jardueren zerrenda argitaratu zuen, hiritarrei berrogeialdia iraun bitartean egin daitezkeen gauzak erakusteko. Ekintzen zerrenda horretan argitaratutako ekintza ge-

hienak aldizkari honen 15. orrialdean kontsultatu daitezke.

Hiritarren elkartasuna gaitz guztien gainetik

Udal webgunearen bitartez boluntario sarea osatzeko deialdia zabaldu zen eta egun bakarrean 200 pertsonen izena eman zuten boluntario sarean. Boluntario horiek, beharrezkoa izanez gero, Gurutze Gorriarekin eta Babes Zibileko kideen lana laguntzea aurreikusi zen.

Konfinamenduak aurrera egin ahala, gizartearen elkartasun keinu ugari errepikatu ziren. Esaterako, azken asteetan zehar estetika zentroetako lagileek, sektore ezberdinetako enpresek zein partikularrek poliziarengana hurbildu dira erabili gabeko eskularru zein maskarak dohaintzan eman eta pandemia geldiarazteko lehenengo lerroan lanean ari direnen babesa ziurtatzeko. Bestalde, iluntzeko 20:00tan balkoira atera eta oinarritzko zerbitzuetan lanean ari diren profesionalen esfortzua txalotzea berrogeialdiko hitzordu ezinbestekoan bihurtu da, minutu batzuetan zehar auzokideak elkar-tzen dituen keinuari esker.

Udalaren sare sozialetan, berriz, #IrunNireBalkoitik erronka martxan jarri da hiritarrek haien etxeetatik ikusten dutena partekatzen animatzeko. Gainera, Irungo udalak eta Maker mugimenduak "Resistencia Team" ekimenarekin bat egitea erabaki zuten 3D-ko inprimagailuak erabiliz langileak babesteko aurpegi biserak sortu ahal izateko Irun Factory egoitza martxan jarritz.

Martxoaren 28an udalak berrogeialdian zehar udal sare sozialetan bitartez urteak betetzen dituzten irundarrak zori-zorietako egitasmoa martxan jarri zuen eta, sare sozial horiek erabiliz, maskarak eraikitzen jarraitzeko gomak eta zinta elastikoak behar direlaren deialdia zabaldu zuen. Horrela, Gurutze Gorriko kideak maskarak egiteko erabili daitezkeen materialen bilketaz arduratuko zela jakinarazi zen.

Agintariek hartutako neurri eta hiritarrek berrogeialdiko lehen asteetan erakutsitako elkartasunari esker, denbora gutxiren buruan egoera kontrolpean izatea espero da garai ilun hau alde batera uzteko. Horrela, pandemia geldiarazteaz gainera, Irungo kaleek berriro ohiko bizi-eritmoa eta alaitasuna berreskuratuko dezaten.

Restta
Diseinu grafiko eta web diseinuko estudioa

943 61 94 89 - 645 009 317
www.resttaestudio.es

@resttaestudio

Web-diseinua

- + Webgune korporatiboak
- + Webguneen diseinua berritzea
- + Blogen diseinua

Diseinu grafikoa

- + Identitate korporatiboa
- + Packaging
- + Merchandising

Elkartasunean dago zoritx



COVID-19ak hiritarren errutina eta alaitasuna hankaz gora ipini arren, Irungo enpresa eta hiritar askok elkartasunean topatu dute zoritxarrari aurre egiteko gakoa. Ezinezkoa da, ordea, idatzi bakar batean berrogeialdiak iraun bitartean hirian gertatutako elkartasun keinu eta ekintza guztiak laburbiltzea. Hiritar asko udaltzaingoarengana hurbildu dira erabili gabeko maskara, eskularru eta batak dohaintzan emateko. Bestetik, "Resistencia Team" mugimenduarekin bat egiteko, Irungo udala eta Bidasoa Bizirik Irun Factoryko 3D-etako imprimagailuak erabili dituzte bisera pantailak sortzeko.

Beste hainbat adibideren artean, Hazlan eta Juncal Aguirre Calzanor enpresa irundarrak hirian sortutako elkartasun sarearen eredu izan daitezke. Miriam Fernández Mendibil Formakuntza Zentroko komunikazio arduradunak eta Elena Dominguez Juncal Aguirre Calzanor enpresako gerenteak maskara eta bestelako babes materialen ekoizpen prozesuko xehetasunak azaldu dituzte.

Nola erabaki zenuten COVID-19ari aurre egiteko maskarak sortzen hastea?

Elena (Calzanor): Martxoaren 16ko astean zehar Facebooken lanean ari diren profesionalek maskaren urritasuna zutela adierazten zuten hainbat mezu irakurri nituen eta gure lantokian ahal genuenean laguntzeko prest geundela erantzun nien.

Miriam (Hazlan): Komunikabideetan birusari aurre egiteko maskaren beharra zegoela ikusi genuen, bai partikular zein osasun zentroentzako material faltaren ondorioz. Sare sozialen bitartez Espainiako tailer ezberdinek partekatutako ekimenak ikusi ostean, geuk ere maskarak sortzen hastea erabaki genuen baliabide nahiakoak eskura geneuzkela ikusita.

Maskarez gainera, beste materialik sortzeko asmoa duzue?

Miriam: Bai, mantalak egin ahal izateko pratoia lortzeko ahaleginetan gabilta, jada mantelen eskariak jaso ditugulako.

Elena: Caser Residencialetik plastikoz forratutako mantalak egitea eskatu ziguten eta haiek eman ziguten beharrezkoa genuen material guztia.

Material bereziak lortzea ezinbestekoa da ekopizpenearekin jarraitu ahal izateko?

Miriam: Martxoaren 23an %100ean kotoizkoak ziren maskarak ekoizten hasi ginen, tenperatu altuetan lixibarekin garbitu daitezkeenak. Mota honetako maskarak egokiagoak dira erabilera indibidualerako edo enpresa zein ofizinetan lanean ari diren pertsonentzat. Martxoaren 25an, berriz, polipropileno izenez ezagutzen den materiala jasoko dugu erabilera bakarrek maskarak sortzen hasi eta osasun eta arlo sozialeko enpresen eskariak erantzuteko. Polipropilenoa plastiko kantitate txikia duen materiala da eta poro txikiaren ondorioz partikulak maskaran harrapatuta gelditzen dira. Ondorioz, ezinbestekoa da erabili ostean maskarez desegitea.

Elena: Bai, martxoaren 23ko astean hasi ginen ekoizpen berezi honekin ohial teknikoak lantzen dituzten banatzaileekin harremanetan jarri eta materialak lortu os-

tean. Gure lehen ideia alpargaten ohialekin maskarak sortzea izan zen, baina, segituan konturatu ginen ez zela horretarako material egokia. Zubi osoan informazioa biltzen ibili ostean, polipropilenoa lortu genuen. Hala ere, normalean oinetarako erabiltzen den material bat probatzen gabilta, beroa eman arren, behin baino gehiagotan erbiltzekoak diren maskarak sortzeko baliagarria izan daitekeelakoan.

Nola lortu duzue maskarak sortzen hasteko oinarritzko formakuntza?

Miriam: Zaila izan den arren, Eusko Jaurlaritzaren Osasun sailarekin harremanetan jarri gara, Aragoi eta beste erkidegoetako josteta tailerrekin hitz egiteaz gainera. Gainera, gure ohiko banatzaileek erabil dezakegun materialaren berri eman digute. Europar Batasuneko CE zigilua izan ez arren, alarma egoerak iraun bitartean eta material faltaren ondorioz horrelako maskaren ekoizpena eta banaketa baimenduta dago.

Elena: Hainbat fitxa teknikoetan zehaztutako ezaugarriak kontutan hartu ditugu maskarak ekoizterako orduan. Gure lehentasuna behin baino gehiagotan erabili daitezkeen maskarak ekoiztea da, horrela, hondakin kopurua murrizteaz gainera, eskari guztiak azkarrago erantzun eta mundu guztiari maskara bat izateko aukera eman nahi diogu.

Zenbat pertsona daukazue maskaren ekoizpenean lanean?

Miriam: Momentu honetan 10 langile dauzkagu eta gure tailerra lanean mantentzeko modua da, jarduera etetea saihesteko. Era honetan, gizarteari ekarpen postibo bat egiten diogu.

Elena: 15 pertsona gutxi gora behera eta maskara zein mantalen ekoizpenean lanean dabilta. Alpargatak egiteari utzi eta maskarak egiten hasi gara.

"Alpargatak egiteari utzi eta maskarak egiten hasi gara"

Elena Dominguez, Juncal Aguirre Calzanor enpresako gerentea

arrari aurre egiteko gakoak



Pertsona eta enpresa askoren eskariak jaso dituzue?

Miriam: Garbiketa enpresa, adineko pertsonen egoitza eta beste hainbat enpresen eskariak jaso ditugu. Jendeak edonolako babesak bilatzen du ingurukoak kutsatzea ekiditeko.

Elena: Bai, koronabirusarekin lehen lerroan lanean ari direnentzako guztiz seguruak izan ez arren, Gurutze Gorriak, gizarte-laguntzaile, AUIF autobusak, Recondo eta beste hainbat enpresen eskariak jaso ditugu.

Zenbat maskara egiten dituzue egunean?

Elena: Langile bakoitzak orduko 50 maskara egitera iritsi daitekeela kontutan hartuta, egunaren amaieran 1.500 maskara egiteko gaitasuna dugula uste dugu.

Miriam: Oraindik kopuru zehatza kalkulatu ez arren, esan dezakegu jostaketa tailerreko langile guztiak erronka honetan inplikaturik daudela: patroik egileak, montatzaileak, jostunak, ...

Ekimenak inguruan babes handia izan du?

Miriam: Askok gainera, komunikabideen deiak jaso di-

tugu elkarrizketak egiteko eta sare sozialetan gure ekimenaren zabalpenaren asko laguntzen ari digute. Gainera, sare sozialak gure lana zabaltzeko ezinbestekoak direla ikusi dugu, eskariak bide horretatik zein 943 615 615 telefono zenbakiaren bitartez iristen zaizkigulako.

Elena: Bai, izan ere, jendeak benetan haien babesak ziurtatzeko elementu hauen beharra zuela ikusi dugu. Horrela, gure webgunearen bitartez, www.juncalaguirre.com, eta telefono deiekin bezeroak gurekin harremanetan jarri dira produktuen inguruko zalantzak argitu eta eskariak egiteko.

Zuen ohiko antolaketan aldaketa handia suposatzen du ekimen honetara batzeak?

Miriam: Bai, baina, erraza izan zaigu helburu berrira egokitzea, hasieratik ahalik eta ondoen antolatzeko ahalgina egin dugu eta egin beharreko lana oso mekanikoa denez, erraza izan da.

Elena: Guk hasieran alpargatak ekoizten jarraitzeko asmoa genuen banatzaileen hornikuntza ziurtatuta geneukalako, baina, jendea laguntzeko gure jarduerak aldi

baterako aldatzea erabaki dugu. Gauzak ondo egin nahi genituen, eromena suposatzen arren. Horrela, egoera larri hau gainditzen dugunean jendea saltzaile txikiak biztanleak laguntzeko egindako esfortzuak gogoratzea nahi dugu, etorkizunean ere guregana etortzen jarraitu daitezten.

“Jendeak edonolako babesak bilatzen du ingurukoak kutsatzea ekiditeko”

Miriam Fernandez, Mendibil Formakuntza Zentroko komunikazio arduraduna

Klub irundarretako kirolariek etxetik eutsiko diete entrenamenduei

COVID-19 gaixotasunaren zabalkundea ekiditeko estatuak deitutako alarma egoeraren ondorioz, hiriko kirol klubek haien egutegiak eta datozen asteetarako aurreikusitako kirol hitzorduak eten behar izan dituzte. Horrela, klub guztien entrenamendu, txapelketa eta partiduak bertan behera gelditu dira. Hala ere, etxean bada ere, kirola egiteko aukerak daudela erakusteko, Irungo kirol klub ezberdinek hainbat egitasmo martxan jarri dituzte teknologia berrien eta sare sozialen laguntzarekin.

Santiagotarrak

Santiagotarrak klubeko ohiko jarduera bertan behera gelditu den arren, klubeko kirolariek etxean dauzkaten kirol-makinei esker entrenamendu errutinak eta kirola egiteko egiten ari diren ahalegina partekatu du klubak sare sozialen bitartez. Gainera, denboraldi hasierako aurkezpenean erabilitako bideoak eta edukiak sare sozialen bitartez partekatu dituzte, etxeko egonaldia entretenitzen laguntzeko.

22 Academy

22 Academyko Josune Gurutzaga, Sheila Gurutzaga eta Jon Menor irakasleek YouTube, Facebook eta Instagram sare sozialetan zuzeneko emanaldiak egiteko aukera aprobetxatu nahi izan dute. Era honetan, berrogeialdia hasi zenetik hainbat dantza klase eman dituzte, estilo ezberdinak landuz: luzaketa ariketak, haurrekin egiteko ariketak, kardio eta tonifikazio ariketak, aretoko dantzak,

dantza urbanoak, ... Zuzeneko saioa egin aurretik hurrengo klasea noiz izango den abisatzen dute dantza akademiaren sare sozialen bitartez eta emandako klaseak Facebook orrialdean gordetzen dituzte.

Bidasoa XXI

Bidasoa XXI klubeko igeriketa zein waterpolo taldeetako kirolariek, etxean igerilekurik izan ez arren, lanean jarraitzen dute. Klubaren sare sozialetan kirolariek etxean haien kabuz egiten dituzten ariketen bideoak eta argazkiak partekatzeaz gainera, etxean kirola egiteko asmoa dutenentzako entrenamendu planak eta ariketak partekatu dituzte.

Real Union

Real Union taldea osatzen duten talde guztien entrenamendu eta partiduak bertan behera gelditu ostean, klubaren sare sozialak Real Union klubeko lehen taldea osatzen duten kirolarien ibilbidea eta lorpen garrantzitsuenak gogoratzeko erabili da. Gainera, beste hainbat futbol taldeen antzera, klubak FIFA20 txapelketan ordezkaria izan da Aitor Aranzate jokalaria txuri-beltzaren parte hartzeari esker.

Bidasoa Irun

Bidasoa Irun klubak, alarma egoeraren harira, Asobal Ligarekin lotutako entrenamendu eta partidu guztiak bertan behera utzi ditu bestelako agindurik jaso arte. Era berean, duela 25 urte klubak Europako txapelketan lortutako garaipena ospatzeko antolatutako hainbat ekitaldi bertan behera uztea beharrezkoa izan da: erakusleho apainketak, bokata lehiaketa, kartel erakusketetarako bi-

sita gidatuak, ... Hala ere, ospakizun ekitaldien antolaketaz arduratzen den taldeak, beranduago bada ere, ekintza guztiak data berri batean antolatzeko asmoa adierazi du. Bien bitartean, klubak Europako garaipena gogoratzeko sortutako sare sozialetan "Trivial Bidasotarra" edo "Recuerdo Elgorriaga" ekimen eta lehiaketak martxan jarraitzen dutela gogoratu du.

Erroibide

Erroibide saskibaloia klubak, klubaren jardueraren etengabeko aprobetxatuz, sare sozialen bitartez saskibaloia zaletuak etxean entretenitzeko, saskibaloiarekin lotutako liburu eta irakurgaiak proposatu ditu.

Super Amara BAT

Bidasoako atletismo taldeak alarma egoeraren ondorioz bertan behera utzitako ekintzen barnean, martxoaren 22an egiteko zen Miliak Osasunaren Alde ekimena urrian egingo dela jakinarazi du. Era berean, udalekuetarako izen emate prozesuak irekita jarraitzen duela jakinarazi da, baina, momentuko egoeraren ondorioz lehen izen ematea egiteagatik kobratu ohi den seinalearen ordainketa ez eskatzea erabaki du klubak.

Leka Enea mahai tenisa

Sonia Etxezarreta teknifikazio zentroko jarduera eten arren, Leka Eneak klubeko jokalaria klubeko kamista janztera gonbidatu ditu. Horrela, etxean egindako kirol entrenamendua irudikatzen duten bideo zein argazkiak sare sozialen bitartez partekatzea animatu ditu berrogeialdia alaitzeko asmoz.



bideosare

Bideoak zure erara!



- > Ikus-entzunezko proiektuak
- > Bideo grabaketa eta edizioa
- > Multimedia

bideosare.com



Berrogeialdian zehar haurrak etxean entretenitzeko 10 ideia

Egunak aurrera joan ahala, etxeko txiki eta handiak entretenitzeko ideiak agortzen doaz. Mahai-joko tradizionalatik haratago, garai ilun hauetan familia ekintza berdinarean inguruan elkartu eta pandemiak eragindako egoera ezohikoa ahazteko ideiak gogoz hartzen dira. Horregatik, ona hemen etxetik atera gabe etxeko txikiak entretenituko dituzten 10 proposamen:



1) Zinemaldia etxean

Berrogeialdiak errutinatik aldentzera behartu arren, etxeko egongela apaindu eta sofan zein lurrean tapaki eta kuxin artean etzanda zinema maratonia egiteko aitzaki bikainean bihurtu daiteke. Krispeta eginberri eta gozokien artean pelikula kutunenak familiako senideekin partekatu edo film berriak deskubritzeko aukera izan daiteke.

2) Olinpiada etxekoiak

Etxeko lau pareten artean bada ere, gorputza astintzeko modua izan daiteke. Etxeko objektuak oztopo gisa erabiliz, olinpiada propioak sortzeko une aproposa izan daiteke. Horrela, familiako kide bakoitzak irudimena martxan jarri eta proba ezberdinak proposatu ahalko ditu, ondoren, familiako kideen azkartasuna, arintasuna, trebetasuna eta pazientzia neurtzeko. Gainera, proba bakoitzeko irabazleak sari txiki bat jasotzen badu, lehiaketa interesgarriagoa izan daiteke.

3) Erlaxaziorako tartea

Itxialdiak iraun bitartean senide arteko tentsio eta urduritasunek gora egitea normala da. Etxera lasaitasuna itzuli dadila laguntzeko, familian yoga eta erlaxazio ariketak egitea gomendagarria izan daiteke. Era honetan, tentsioak desagertzeaz gainera, ariketa bitxi eta ezezagunak ikasiko ahalko dira. Gainera, mota honetako ekintzak berrogeialdiko errutinan txertatuz gero, egunak aurrera egin ahala konplexuagoak diren ariketak egiteko abilezia lortuko da.

4) Argazki collage-a

Asperraldi gariak etxeko armairu eta kaxetan gordetako argazki zaharrak aireztatu eta iraganeko bizipenak gogora ekartzeko une aproposak izan daitezke. Hortaz gain, argazkiak oinarri hartuta, etxetik aurkitu daitezkeen guraize, kola, margo, soka eta materialak irudimen apur batekin elkartuz, arte sormena eragiteko modu bikaina izan daiteke.

5) Altxorraren bila

Senideak bi taldetan banatu eta talde bakoitzak beste senideek egin beharko dituzten probak pentsatu beharko dituzte. Probak egin ahal izateko, ordea, aurkariak etxean zehar sakabanatutako pistak aurkitu beharko dituzte lehenengo. Erronka guztiak gainditzen dituen talde irabazleak altxorra eskuratuko du.

6) Sukaldean trebatuz

Etxeko sukaldea familiko senide guztien artean egin daitezkeen errezeta goxoen sorgunehar bihurtu daiteke. Jogurt potearen neurriarekin egiten den bizkotxo errezetatik haratago, errezeta berriak probatzeko aukera izan daiteke. Adibidez, txokolate likido apur batekin marrubiak erditik erdituz, amona mantangorri dibertigarriak sortu daitezke sukaldea gehiegi nahastu gabe.

7) Lorategi txikia

Udaberria iritxi dela aprobetxatuz, etxeko leihoak apaintzeko ordua iritsi da. Jogurt pote hutsetan kotoi zatien artean dilista eta garbantzuak sartu eta egunero pazientziarekin ureztatzea izango da egin beharreko bakarra. Egun batzuen buruan kotoi artean landare txikiak haziko dira.

8) Istorio sortzaileak

Paper zatiak moztu eta etxeko senide bakoitzak bururatzen zaizkion hitz guztiak idatzi beharko ditu paper zati bakoitzean. Papertxoak tolestu eta nahastu ostean, kide bakoitzak bost paper bolatxo hartu eta egokitutako hitzak erabiliz istorio bat sortu beharko du.

9) Dantza eta karaoke lehiaketa

Senide bakoitzak etxean topatutako arrokekin mozorratu eta karaoke zein dantza lehiaketa bat antolatzeko aukera bikaina izan daiteke. Bakarka edo etxekoekin elkarlanean ikuskizunak prestatu eta gainontzekoen aurren erakutsi beharko da egindako lana. Etxeko guztiak dantzan eta kantuan jarriko ditu ekintza honek.

10) Berrogeialdiko egunerokoa

Askatasuna eta normaltasuna itzultzen direnean, berrogeialdian zehar bizitakoak eta egindakoak oroitzeko eguneroko bat sortzea ideia aproposa izan daiteke. Horrela, egunerokoaren orriak, argazki, eskulan eta berrogeialdiko bizipenekin beteko dira, eternaldi derrigortu honek erakutsitako guztia egun batetik bestera ahaztu ez dadin.

2020ko martxoaren 7a - Ainara Maia Urroz

EUSKAL EMAKUME IDAZLEA: ERAGILE ETA SORTZAILE (2)

Duela gutxi, aste honetan berean, adiskide edo adinez bestela den kide batek erran dit ez dakidala enpatizatzen, ez baitut besteen mina sentitzeko ahalegina egiten. Ez dakit egia den, ene bizitza osoa besteek zer senti edo pentsa zeuden ibili naizelako neure burua bigarren plano batera jaitziz, baina agian oker nago, ez dakit. Zer pentsa eman dit.

Pasa den aste hondarrean Bergarako UNEDeko idazle eskolako "Euskal emakume idazlea: eragile eta sortzaile" monografikoa bukatu zen, eta larunbatean berean Sor Juana Ines de la Cruz idazlearen bizitzan oinarritutako euskal musikal bat ikusi nuen Donostian: "Ni, munduko txarrena", guztiaren gainetik emakume baten historia, eta nireaz hausnarrarazi ere ninduen.

Bihar emakumearen nazioarteko eguna da, eta ene gorputzak ez dit eskatzen kalera ateratzea ez borrokara ez festara. Tristura handia sentitzen dut ene bihotzean, ni neure penean itotzen naizela sentitzen naizelako, eta bien bitartean zenbat emakume bortxatu, kolpatu edo eraildako dauden pentsatzea. Tristura sentitzen dut, antza beharbada enpatizatzen ez dakidalako, ene emakume-bihotza zauriturik dagoelako oraindik, itxaropenak eta ametsak zapuzturik ditudalako, egoista neure buruarengan soilik pentsatzen omen dudalako. Baina nik soilik zoriontsu izan nahi nuen, behinola Montevideon bezala, erabat eta bilateralki zoriontsu. Gizon eta emakume bat eginik.

Horregatik idazten dudala uste dut, ene sufrimendua eta pena ulertzeko, eta horrekin mundua ulertuko dudalakoan, munduko injustizia eta sufrimendu oro ulertuko dudalakoan. Horregatik idatzi zituen bere olerkiak Sor Juana Ines de la Cruz-ek XVII. Mendean, horregatik idatzi zuten Bizenta Mogelek, Virginia Woolfek, Lou Andreas Salomek eta Hannah Arendt-ek ere bai.

Emakumetasunaz gain, euskaldunok euskara dugu arrazoi nagusi idazteko, gure tresna den hizkuntza zergatik irau duen orain arte jakiteko eta ulertzeko beharra dugulako. Hannah Arendt XX. mendeko filosofo handiak ere mundua ulertu nahi zuen eta horregatik idatzi zuen.

Euskal literaturaren sistemak ere marko teoriko bat behar duela ondorioztatu genuen idazle eskolako monografikoaren ondoren, euskal literaturan marko teoriko orokor bat abiapuntu litzateke kontzientzia pizteko, bazterrekoak garelako jabetzeko eta bazterretik egiten dela iraultza ikusteko. Euskal literaturak ere badu bere kanon literarioa eta erdigune kontserbadorea, baina bazterretik dator berrikuntza eta iraultza. Bizitzaren tentsioa behar da eragiteko, onargarri ez den hori idaztea ez da hain erraza, eta gaur egun "erraza" da literatura ona egitea, baina sortzaileok eredu kanonikoetatik askatu behar



dugu, eredugarri izateko. Eredu bat garrantzitsua da puskatzeko, liburu kanonikoe laguntzen baitigute pentsatzen eta idazten segitzera.

Betidanik idatzi izan dut, eta nire poemak eta idatziak gaztetatik bidali ditut literatur lehiaketa eta beketara, baina epaimahaiek inoiz ez naute hautatu. Beti pentsatu izan dut poeta sentimental txar bat nintzela, bihotz triste honen sentipenek zirriborratzen zituelako paper zuri pila; baina orain badakit poeta sentimentala baino, benetako sentimenduz idazten duen poeta bat besterik ez naizela, emetasunetik eta euskaratik erein nahian hazia. Auxtin Zamorak lehen aldiz ene hitzak 2001ean HATSAREN POESIA liburuan argitaratu zituelarik, balioetsia sentitu nintzen, eta idazten segitzera animatu.

Euskal literaturan ez dugula kanonik erran zuen Idazle eskolako zuzendari Tere Irastortzak, lotsa eta zentsura dugulako; euskal literaturaren historian emakume idazle eta eragile asko egon dira, baina isilean eta auto-zentsuraturik: Minaberri, Lurdes Iriondo, Euxebi Osa, Sasiola, Azkueren arreba...).

Iragan larunbateko "Euskal emakume idazlea eta eragi-

lea" solasaldien amaieran zenbait proposamen atera ziren eta elkarlanean segitzeko gogoia zenbait egitasmoan, hala nola: sistema bat sortzea (weborri bat) euskal emakume guztion lanak, kritikak eta irakurketak jarriko direnak, argitalpen guztietan egileen izen osoak ager daitezela, izen eta abizenekin, gizona ez gaitzaten, idazle-egonaldiak, Bibliobus morea gida literario batekin, euskal emakume idazleen liburutegi eta gordailua, izkribuen gordailua, Auspoa eta Sendoa bezalako bildumen lana goraiatzea...

...eta batez ere idazten eta sortzen segitzea, sortzen dugunean gauza asko ateratzen baitira ez dakizkigunak, harriz gaituztenak, eta hori da literatura, harriduraz sortzea. Idaztea norbera ezagutzea den bezala. Sormena irakurritz ateratzen da, eta irakurtzea arreta eskaintzea da gauza bati. Emakumeak izan arren, unibertsalak gara. Ez dagoen mundu bat, neurea, azaldu beharragatik idazten dut, denok baitugu zer esana.

Irakurritz sustatu, eta ezagutuz birgaitu. Hori egin behar dugula ondorioztatu genuen Bergaran. Sistema non sortzen da? Nola? Sortzaileak igerian dakigu orain idazle, gero irakurle, ondoren zaintzaile. IZATEA da sortzea.

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780



CASER ANAKA

caser
residencial

GURE AITONA-AMONEN
ONGIZATEA HELBURU
Egonaldi iraunkorrak
eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169



CASER BETHARRAM

Elatzeta HH



Denbora-pasak

Zazpi hitz: Etxeko objektuak

E	L	I	B	U	R	U	C	C	A	E	H	A
A	I	I	A	H	A	M	A	A	I	A	I	P
A	E	N	M	A	T	E	U	D	S	O	K	R
B	N	E	U	N	N	A	L	R	O	I	N	Q
L	T	I	R	E	D	A	K	T	A	E	U	U
U	E	E	E	D	M	T	I	T	R	S	L	I
E	S	E	L	T	K	L	L	I	T	I	E	U
A	R	P	E	E	A	U	L	A	A	N	O	L
D	T	P	M	E	B	O	S	K	Z	Q	H	I
R	I	L	E	B	L	I	Z	L	H	A	E	P
I	H	U	L	U	E	O	S	N	S	A	A	S
R	L	C	Ñ	L	H	I	A	T	E	O	N	I
P	E	U	E	I	I	E	X	I	A	H	H	A

				8		2	5	
						9		
				2		7	6	8
2		4				5	3	
6		5	8	7	2			
		7	4	5				
							7	3
3			7	6	9	4	5	
			2		4			

telebista, mahai, ohe, hozkailu, ispilu,
liburu, aulki



ETXEKALTE

**Doinua: "Esperantzarik gabeko zenbait" Mikel Urdangarin
Egilea: Egoitz Zelaia Perez**

- 1) Hamabi urte baino ez ditu eta Angelun bizi da, ikastetxea itxi dutenez umeak etxean dira. Haren ezpainen ertza iristen da irribarre ttikira; berandu arte lo egin eta bideo-joko partida... bizi osoa pasako luke telebistari begira.
- 2) Hogeita batak bete berritan eta Gasteizko neguko hotzen artean lagunik ez da ingurura azalduko. Fakultateko lanak eginez eguna hasi orduko, atera nahia irentsiz, bera eta beraren moduko anitz, irrikaz dabil hurrengo osteguna noiz helduko.
- 3) Ipuin, marrazki, kilimen gerra, eskulan batzuk bestela, ustekabeen jolas eremu bilakatu da jangela. Nahia deitzen da sei urte ditu, alaba bakar, fidela, eta badira jada lau egun pentsatzen hasia dela txakurra bera baino gehiago maitatu dezaketela.
- 4) Ertzaintzarako oposizio prestaketetan dohatsu aritu denak baditu hainbat momentu gorabeheratsu. Ordiziako Unai ere bai ibili da horrelatsu. Baina kanpoko birusarentzat, denarentzat loriatsu, alferrik dira autoritate, pistola eta mehatxu.
- 5) Haren herrian aditzen zuen aurkako komentario ostean heldu zen Lesbosera mehatxuen kontrario. Geroztik dena izanagatik laguntza boluntario dabil etxe bat noiz aurkituko, kalbarioz kalbario, baina etxean dagoenari horrek zer axola dio?
- 6) Hirurogeita hamasei urte, ez da lehen bezain abil. Kutsatua den ongi ez daki, baina susmoa darabil. Etxaldeetako bakardadean guztia da kutx ala pil. Jatsun bizi da eta ez du nahi halako egoeran hil. Lehen herio urrun zebilen orain ate joka dabil.
- 7) "Etxean izan bermatu dadin zure seguritatea" esaldi hori Anerentzat ez da errealitatea. Orain mozkor bat biolentoa da lehen zena maitea. Aspaldidanik arriskuan da bere ongi-izatea lehen, bederen, izaten zuen zortzi orduko bakea.
- 8) Jada kanpoan aukerarik ez denez bazterrak nahasteko, ordenagailu aurrean pasaz berrogei ordu asteko, bertsolari bat dabil Hendaian gertu hitzak orrazteko borrokan dabil ideia on bat erakarri arazteko, baina tartea atera digu bertso hauen idazteko.

San Vicente de Paul LH6

Irune, 2019ko Abuzarriaren 12

Konko Ana

Eskeintze bari iristen dute koruak
 or nazaketa eta beldurak jadan iristen zaitzakeela...
 U, haldin ez naganen, bawak, hite nax. Kanpoko, sardari
 nax, besterik in paxik ezaketa. Ez dabilko naxi hitea por
 helaketa bestekin.

Goiz gertak, zu hitean, oso paxik
 jaxen nax. Baina nik uste dut baxerak zaitzake eta ezin
 dakea deitara zaki hitean egan hitegatu, ditekis zaki nax
 amonakkin.

Gara ghera gaxaten zaidara,
 osteburua zuekin egitea da. Baina nax, haxitu zaido, ufer-
 tu dut hite orai-urteko gaxa eta hitei naxi baxi gaxerak.

Gustakiko hiteak, zu, jaxta
 gaxerak: naxa, eta haxida, zuekin gaxerak hiteko naxera
 irango naxi.

Haxu baxi! Axko naxi zaidu!



22 Academy
 22academybaile.com 943 50 98 94

JECA
 JECA
 JECA
 Serapio Mujika kalea, 5, irun - 943 613932

ANTXETA
 IRRATIA
 90.5 / 89.7 FM

TXINTXO
 Hurbildu zaitex gure pintxoak probatzere
 943 10 33 56
 Dario de Regoyos Kalea, Irun

HAMAIIKA
 Hobeto bizitzeko irtenbideak
 ZURE ETXEA ERAIKIZ
 hamaika.com (+34) 943 64 64 72

Etxetik lan egin eta ikasteko aitzakiarik ez



Koronabirusak eragindako krisiaren ondorioz, etxetik ikasi eta lan egitea aukerarik egokienean bihurtu da. Lehenengo egunetako kaosa gaindituta, telelana praktikan jarri eta errutina berrien sorreran dago gakoa. Etxetik egindako lanaren aprobetxamendua handitzeko asmoz, hona hemen erabilgarriak izan daitezkeen hainbat trikimailu eta aplikazio:

Etxetik lan egiteko gomendioak:

1) Telelana errazteko, lanerako erabiliko den gailuak interneterako konexio egonkorra izatea komeni da. Konexioa motela bada, sare berean gailu gehiegi konektatuta daudelako izan daiteke, beraz, lanerako beharrezkoak diren tresnak soilik konektatzea aholkatzen da konexioa azkarragoa izan dadin. Hortaz gain, konexioa azkartzeko beste trikimailu bat, Wifi ordez, interneterako konexioa kable bidez egitea izan daiteke.

2) Etxetik mugitu ez arren, lanerako sarri eta irteera ordutegi bat finkatzeak lan errutina bat sortzen lagundu dezake.

Horrela, kontzentratzen saiatu eta distrakzioak ekiditeko modua topatzea errazagoa izango da.

3) Gainera, etxean lan egin edo ikasteko eremu bat egokitzea gomendagarria da, argiztapen egokiarekin eta, ahal den neurrian, distrakzioak eragin ditzaketen eremuetatik urrun.

4) Produktibitatea handitzen laguntzeko, tarteka atsedenaldiak egitea komeni da, baina, era kontrolatuan, lan orduak gehiegi oztopatu gabe.

5) Egin beharreko zereginekin zerrenda bat osatzea lanaldiko helburuak zehazteko lagungarria izango da, eginbeharrak aurretik finkatutako epearen barnean egin eta hanka-sartzeak ekiditeko.

Telelana errazteko aplikazioak:

Google Drive: Telelana laguntzen duen erreminta aski ezaguna da, aldi berean hainbat pertsoneri dokumentu berean lan egiteko aukera ematen diena. Aldaketak uneoro automatikoki gordetzen dira eta gainontzeko taldekideek egindako lana

ikusteko aukera ematen du.

Telegram: WhatsApp ezagunaren antzeko funtzionamendua duen aplikazio honek pisu handiagoko artxiboak partekatzea ahalbidetzen du edozein gailu mugikorrean deskargatu eta horretara egokitzen den aplikazioaren bidez. Dokumentuak edonon kontsultatzeko aukera emateaz gainera, 200.000 kidez osatutako lan taldeak sortzeko aukera eskaintzen du.

Skype: Ordenagailutik zein gailu mugikorretatik deiak eta bideo deiak egiteko aukera ematen du zerbitzuak, doako bertsioan 50 pertsonen osatutako taldeak sortu daitezkeelarik.

Hagouts: Googlek sortutako aplikazio honek 10 pertsona arteko elkarrizketak eta bideo deiak egitea ahalbidetzen du. Doako aplikazioa da eta Gmail kontuari loturik dago.

Dopbox edo WeTransfer: Aplikazio hauek eskaintutako zerbitzuaren bitartez pisu handiko dokumentu eta artxiboak partekatu daitezke fisikoki urrun dauden

pertsonek artean, modu azkar eta sinplean egiten den bidalketa baten bitartez.

Trello: Aplikazio honek zereginen antolaketan errazten du, talde lanetarako helburuak finkatzen lagunduz. Horrela, zutabekako antolatutako egitura baten bitartez egindako zereginak, martxan daudenak eta oraindik egiteko daudenak era argian bereiztea posible da. Gainera, dokumentuak partekatu, iruzkinak egin eta epemugak ezartzeko aukera ematen du.

Libre Office: Programa pakete honek lanerako egokiak izan daitezkeen hainbat doako lantresna eskaintzen ditu: testu prozesatzailea (Writer), kalkulu orrien editorea (Calc), aurkezpenen kudeatzailea (Impress), datu-base kudeatzailea (Base), grafiko bektorialen editorea (Draw) eta formula matematikoen editorea (Math).

Oinarrizko trikimailu eta doako aplikazio hauek, normaltasuna berreskuratu arte, lan eta ikasketekin etxetik jarraitzeko eragozpen guztiak desagerraraziko dituzte.



- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Web gunean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

Esan Nola Daramazun

Egoera honek bizitza aldatu digu guztioi. Gazteen kasuan, klaseak eten egin dira, lanean eta errutinetan aldaketak izan dira. Gainera, kontaktu soziala, edozeinentzat garrantzitsua bada, are garrantzitsuagoa da gazteentzat, eta konfinamendu egoera honetara nola egokitzen diren ezagutu nahi dugu Gazteen Euskal Behatokian.

Norentzat: EsanNolaDaramazun inkesta 15 eta 34 urte bitarteko Euskadiko gazteei zuzenduta dago.

Galdetegia: Esteka Gazteaukera programaren webgunean aurkituko duzu.

Auzolandegietarako izen-ema-tea bertan behera

Auzolandegietan leku askotako gazteak biltzen dira, euren borondatez eta ordainetan ezer jaso gabe, aldi batez elkarrekin bizi eta gizarte osoarekin zerikusia duen proiektu batean parte hartzeko asmotan.

Koronabirusak eragindako krisialdiaren ostean, ordea, bertan behera utzi da Auzolandegien aurreinskripzioa. Aurrerago emango da daten berri.

Milaka proposamen etxean ez aspertzeko

Berrogeialdian zehar etxean ez aspertzeko proposamenen bila zabiltza?

Arabako Gazteriaren webgunean aisia, antzerkia, ikasketak, kirolak, literatura, museoak, musika, opera eta zinemarekin lotutako hainbat jardura biltzen dituen zerrenda argitaratu da "Ni etxean gertuko naiz" tituluarekin.

Proposamen zerrenda: <https://gazteria.araba.eus/eu/-/yo-me-queda-en-casa>



Sare sozilaiei esker berrogeialdian zehar aspertzeko aukerarik ez

Gazteria arloak jardura bereziak martxan jarri ditu berrogeialdiak iraun bitartean haur, gazte eta familien interakzioa sustatzeko. Horrela, Haurtxoko, GazteARTEan eta Gaztelekuko sare sozialetan eduki ezberdinak partekatuko dira. Helburua era berean hezigarriak diren eduki digitalak eskaintzea da, ekintza dibertigarri, osasungarri eta sormenez beterikoak partekatzearekin batera. Era honetan, etxetik egin daitezkeen ekintzak proposatuko dira, ondoren, komunitate osoarekin partekatu ahalko direnak.

Haurtxokoak

Haurtxokoan Facebook profilean Haurtxokoetako ohiko erabiltzaileen zein 4 eta 11 urte arteko haurrak dauzkaten familien arteko komunikazioa aregotzea bilatzen da. Modu honetan, familiarako jarduerak egiteko baliabideen erreferentziak bilduko dira eta, egunak aurrera joan ahala, jardura propioak sortzea planteatuko da, haurtxokoetako hezitzaileak protagonistak izango direlarik.

Gaztelekua

Gaztelekuan, berriz, Instagrameko kanala erabiliko da eta hezitzaileek argazki eta bideoak partekatuko dituzte, sukalde, jolas edo kirolarekin lotutako ekintzak proposatzeko.

GazteARTEan

GazteARTEan zerbitzuak, Twitter eta Instagramen dituen kanalen bitartez, zehazki, 16 eta 25 urte arteko gazteentzako proposamenak eskainiko ditu. Hau da, elkarlanean aritzeko ekimen motibatzaileak eskainiko dira, lurraldeko beste gazteria zerbitzu batzuekin koordinatuta.



Apirila etxetik disfrutatzekeo ekintzak

Alarma egoeraren ondorioz hainbat udal instalakuntza eta beste hainbat zerbitzuek ateak itxi behar izan dituzte. Hala ere, teknologia berriek hainbat ekintza eta ekime- nez gozatzea ahalbidetzen dute, nola ez, etxetik atera gabe.

Kultura

CBA liburutegiak Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen barruan eliburutegian eduki digitalak internet bidez irakurtzeko aukera ematen du streaming, ordenagai-luan edo gailu mugikorretan. Hortaz gain, ikus-entzunezkoak eta pelikulak internet bidez ikusteko aukera eskaintzen du www.eliburutegia.euskadi.eus plataforman.

Zerbitzuak erabili ahal izateko baldintza CBAko bazkidea izatea da.

Gainera, Kultura arloak, sare sozialak baliatuz, musika emanaldiak, arte garaiki-dearen esparruko proposamenak eta Marrazki eta Pintura Akademiaren eskutik edukiak sortzeko asmoa du. Kasu bakoitzean egokien egokitzen diren plataformak (YouTube edo sare sozialak) erabiliko dira eduki horien hedapenerako.

Euskara

Udal Euskaltegiak, ikasleen beharrak erantzuten jarraitzeko, irakasleek, ahal duten neurrian, teknologia berriak erabiliz eskolak ematen jarraitzea ahalbidetu du. Gainera, teknologia berrien bitartez, Lannahi programaren hirugarren txanda martxan da.

Kirolak

Alarma egoeraren ondorioz Eskola Kirola programa bertan behera gelditu ostean, ekintzaren kudeatzailea den www.bpxport.es plataformatik bideo sinpleen bitartez etxean bertan egin daitezkeen ariketa fisikoak proposatuko dira. Ekimen honi esker, etxetik atera gabe kirola egiteko proposamenak luzatu nahi dira, berrogeialdia errespetatuz, forma fisikoa mantentzea posible izan dadin.



Denborapasen emaitzak

E	I	I	R	L	K	U	L	C	A	F	H	A
A	I	A	A	A	M	A	A	A	I	A	I	P
A	E	N	M	A	T	E	U	D	S	O	K	R
E	N	E	U	N	N	A	L	R	O	I	N	Q
L	J	R	E	D	A	K	T	A	E	U		
U	E	E	D	M	T	I	F	R	S	I	I	
E	S	L	I	K	L	L	I	I	J			
A	R	P	E	E	A	U	L	A	A	N	C	L
D	T	P	M	E	S	O	S	K	Z	Q	H	I
R	I	L	E	B	L	L	H	A	E	P		
I	H	U	I	L	E	C	H	S	K	A		
R	L	C	S	L	H	I	A	T	E	O	N	I
P	E	U	E	I	E	X	I	A	H	H	A	

7	6	3	9	4	8	1	2	5
8	5	2	6	1	7	3	9	4
8	4	1	3	2	5	7	6	8
2	8	4	1	9	6	8	3	7
6	3	5	8	7	2	9	4	1
1	9	7	4	8	3	2	9	6
4	2	9	5	8	1	9	7	3
3	1	8	7	9	9	4	5	2
5	7	6	2	3	4	8	1	9

Irungo historia aztertzekeo aukera

Irungo udalak udal artxiboaren webgunearen bitartez Irungo historia ezagutu eta dokumentu historikoen artean arakatzeko aukera eskaintzen du. Horrela, Udal Artxiboaren webguneak hemeroteca, fototeka, San Martzialako programa historikoak eta beste hainbat material berezi etxetik kontsultatzeko aukera eskaintzen du.

Oiasso Erromatar Museoa etxean bertan

Irungo Oiasso Museoa sare sozialen bitartez, berrogeialdiak iraun bitartean, museoan bildutako eduki zein piezak ezautzera emateaz gainera, Erromatar garaia- rekin lotutako bitxikeriak eta eduki interesgarriak partekatzekeo ekimena martxan jarri du.

Eskubaloiko Europako Koparen ospakizunak bidelagun

1995ean Bidasoa eskubaloi taldea Europako Kopan garaile izan zela ospatzeko sortutako ekimenaren sare sozialetan berrogeialdia arintzek mota askotako edukiak partekatzen dira. Hala nola, Europako Koparekin lotutako marrazkiak haurrentzat edo garaipenarekin lotutako informazio interesgarria.

Adineko pertsonentzat

Adineko pertsonen zerbitzuak adineko pertsonentzat interesgarria izan daitezkeen edukia sortu eta partekatzekeo lanean dabil, hau da, ariketa fisikoak, jokoak eta beste hainbat proposamen. Ekintza horiek koronabirusak eragindako krisialdiaren harira sortutako udal webgunearen atal berezian (www.irun.org/coronavirus) bilduko dira.

Iluntasuna argitzeko esperantza

Gizarteak bizi dituen garai ilun hauetan, berrogeialdian zehar zendu edo senideren bat galdu duten pertsonak omentzeko deialdia zabaldu da sare sozialaren bitartez. Apirilaren 1eko, asteazkeneko, iluntzeko 21:00etan etxeko balkoi zein leihoak kandela edo linternekin argitu eta "Xalbadorren heriotzean" abesteko deialdia zabaldu da. Ekimen honen bitartez fisikoki urrun dauden senide eta lagunei elkartasuna eta berotasuna helarazi nahi zaie.

Adiskide bat bazen
orotan bihotz-bera,
poesiaren hegoek
sentimentuzko bertsoek
antzaldatzen zutena.

Plazetako kantari
bakardadez josia,
hiltzen lihoa iruten
Bere barnean irauten
oinazez ikasia...
ikasia.

Nun hago, zer larretan
Urepeleko artzaina,
Mendi hegaletan gora
oroitzapen den gerora
ihesetan joan hintzana.

Hesia urraturik
libratu huen kanta,
lotura guztietatik
gorputzaren mugetatik
aske senditu nahirik.

Azken hatsa huela
bertsorik sakonena,
inoiz esan ezin diren
estalitako egien
oihurik bortitzena...
bortitzena.

Nun hago, zer larretan
Urepeleko artzaina,
Mendi hegaletan gora
oroitzapen den gerora
ihesetan joan hintzana.

